

LEZOKO HERRIAN ETXEBIZITZAK ALOKAIRUAN HARTZEKO DIRU-LAGUNTZAK EMATEA ARAUTUKO DITUZTEN OINARRI ERREGULATZAILEAK

I-XEDEA

1. artikulua.- Xedea eta epe diru-laguntzaren epearen iraupena.

Deialdi honen xedea da Lezoko 18 eta 30 urte bitarteko gazteen autonomia eta emantzipazio prozesuan laguntzea, eskaera egiten dutenen ohiko bizilekua den etxebizitzaren alokairua ordaintzen laguntzea zati batean, dagoeneko etxe bizitza errentan hartuta daukatenean eta horretara bideratuak dauden gainontzeko laguntzetarako (Etxebizitzarako Prestazio Osagarria edo Gizarte Larrialdietarako Laguntza) eskubiderik ez dutenean.

Etxebizitza partekatzen duten herritar guztiak izan daitezke onuradun, baldin eta errentamendu-kontratua denek sinatzen badute banan-banan eta baldin eta beste baldintza guztiak betetzen badituzte. Kasu horretan, kontratua sinatu duten guztien artean hainbanatuta konputatuko da errenta.

Oinarri hauetan ezarritako baldintzen arabera tramitatu eta emango da diru-laguntza, eta onuradunak hamabi hilabetean ordaindu beharreko alokairua ordaintzeko erabiliko da, baldintza horiek epealdi horretan zehar mantentzen baldin badira.

Diruz lagunduko diren alokairu-gastuak 2018ko urtarrilaren 1etik 2018ko abenduaren 31ra bitartekoak izango dira

Oinarri honetan jasotakoari jarraiki, alokairutik edo diruz lagundu daitekeen kontzeptutik kanpo geldituko dira, garaje eta komunitate eta administrazioko gastuak, bai eta kontribuzio edo zerga kontzeptupean sor daitezkeenak ere, dagokion kontratuan berariaz sartuta egonda ere.

2. artikulua.- Diru-laguntzaren zenbatekoa.

Deialdi honetan emango diren diru-laguntzen zenbatekoa guztira 15.000 eurotako izango da, eta hori 2018. urterako Lezoko Udalaren Aurrekontuen 1.480.01.231.70 2018 partidatik egingo da.

Eskaerak erregistroen hurrenkeraren arabera onartuko dira, horretarako izendatutako aurrekontu-kredituan kontsignatutako kopurua bukatu arte.

3. artikulua. Ezargarri den araudia.

Diru-laguntzak ematea eta onuradunaren eta entitate emailearen arteko harreman juridikoa arautuko dira oinarri hauen arabera eta laguntza ematen den unean indarrean dagoen araudiaren arabera.

Oinarri horietan ezarritakoaz gain, honako hauek arautuko dituzte diru-laguntzak:

— Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa.

— Diru-laguntzen Araudi Orokorra, 887/2006 Errege Dekretuak onartua, uztailaren 21ekoa.

— Dirulaguntzak emateko eta kudeatzeko Lezoko Ordenantza Arautzailea (2006ko abenduaren 7koa)

— Lezoko Udalak onartutako diru-laguntzen plan estrategikoa, (2014ko uztailaren 26koa).

4. artikulua. Pertsonak edo bizikidetz-unitateen onuradunak.

Bizikidetz-unitatea pertsona hauek osa dezakete:

— Bakarka bizi diren pertsonak.

— Beste pertsona batzuekin bizi direnak. Diru-laguntza eskatzeko formula aukerazkoa da eta eskatzaileen esku egongo da bata ala bestea aukeratzea:

*Pisu-kideen arteko harreman ekonomikorik ez badago, pisu-kide bakoitzak aurkeztuko du, bere izenean bakarrik, dirulaguntza eskaria. Edozein kasutan ere, etxebizitza berean bizi diren gainerako pisu-kideen izenak aipatu beharko ditu eskaera-orrian.

* Pisu-kideen artean senidetasun harremana edota harreman ekonomikoa baldin badago, eskari bakarra aurkeztuko dute, eta heldu guztiek sinatuko dute eskaera hori.

Indarrean dagoen aurrekontu ekitaldiaren kargura emango diren diru-laguntzen onuradunak izango dira, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean oinarri hauek argitaratzen diren egunean eta diruz lagundu daitekeen epean, baldintza zehatz hauek beteko dituzten pertsona edo bizikidetz-unitateak:

a) 18 eta 30 urte bitarteko adina izatea. Diru-laguntza 31 urte betetzen diren hilaren aurreko hilabetera arte onartuko da.

b) Errolda:

Diru-laguntzen onuradun diren bizikidetz-unitateko pertsona guztiek diru-laguntza jasoko duen etxebizitzan erroldatuta egon beharko dute. Egoera hau diru-laguntza jasotzen den bitartean mantendu beharko da.

Halaber, kontratuaren titular ez diren adin nagusiko pertsonak baleude etxebizitzan erroldatuta, kontratuaren titularrek erroldan baja-eskaera egin beharko dute pertsona horientzat, eskaera aurkeztearekin batera.

Erroldak eta kontratuak bat etorri behar dute adin nagusiko pertsonen kasuan.

Diru-laguntza pertsona bakarrentzat eskatzen bada, berak bakarrik egon beharko du Lezon erroldatuta gutxienez urtebeteko antzintasunarekin etenik gabe, eskaera egiteko unean.

Diru-laguntza bizikidetz-unitate osoarentzat eskatzen bada, eskatzaileak egon beharko du Lezon erroldatuta gutxienez urtebeteko antzintasunarekin etenik gabe, eskaera egiteko unean.

c) Onuradunaren eta errentatzailearen artean ezin izango da inolako familia-loturarik izan odolkidetasun edo ahaidetasuneko bigarren mailaraino.

d) Eskatzaileak ez du izango bere jabetzako etxebizitzaren bat, salbu eta herentzia edo dohaintza bidez eskuratutako jabetza osoko etxebizitza baten titular-kide denean, eta kotitularitate-portzen tajea % 50etik gorakoa ez denean, partaidetzen balioa 76.500 euro baino gehiagokoa ez bada. Balioa herentzia edodohaintza dokumentuan azaltzen dena izango da.

Hala ere, laguntza eskatu ahal izango dute etxebizitza baten jabe % 50ean baino gehiagoan diren herritarrek, salbuespen egoeran baldin badaude eta etxebizitza hori legez erabili ezin badute.

e) Diru-iturri erregularra izatea, gutxienez gutxieneko soldata interprofesionalaren urteko irabazi gordinen pare, eta 28.000 euro gehienez. Bizikidetza unitatea bi pertsona edo gehiagoz osatuta baldin badago, gehienez 39.000 euro.

f) Diru-sarreraren osaketari dagokionez, amaitutako azken zerga-ekitaldiko kapital errentetatik eratorritako errendimendu gordinen zenbatekoa ezin izango da urtean 600 eurotik gorakoa izan.

g) Bizikidetza-unitateko kideek ezin dute udal ogasunean zorrik izan onuradun izan ahal izateko.

h) Eskatzaileak edo bizikidetza-unitatea osatzen duten kideetako batek antzeko helburua duen beste diru-laguntzaren bat (administrazio honek edo besteren batek emana) kobratzeko eskubidea baldin badu, ezin izango du diru-laguntza hau jaso.

i) Eskatzaileak edo bizikidetza-unitatea osatzen duten kideetako batek antzeko helburua duen beste diru-laguntzaren bat (administrazio honek edo besteren batek emana) kobratzeko eskubidea izanda, ukatu egin bazaio, betebeharrak ez betetzeagatik edota dokumentazio faltsua aurkezteagatik, ezin izango du diru-laguntza hau jaso.

5. artikulua. Etxebizitzek bete beharreko baldintzak.

1. Diruz lagunduko den etxebizitzak Lezoko udalerrian egotea.

2. Etxebizitza Udal erroldan altan emanda egotea.

6. artikulua. Baztertzeak.

Ez dira onartuko kasu hauetan sartzen diren eskaerak:

a) Ondorengo etxe bizitzak:

1. Sustapen publikoko babes ofizialeko etxebizitzak.

2. Etxebizitza gisa erabilitako lokalak.

3. Alokabide programaren barruan dauden alokairu etxebizitzak.

b) Hilean 650 euroko zenbatekoa gainditzen duten alokairuko etxebizitzak.

c) Ez da onartuko urte bete baino iraupen txikiagoa duen kontraturik.

II-ESKAERAK

7. artikulua. Onuradunaren betebeharrak.

Diru-laguntzetarako Lege Orokorraren 14. artikuluan eta Lezoko Udalaren Diru-laguntzak ematea arautzen duen Ordenantzan datozenez gain, onuradunak honakoak ere bete beharko ditu:

- Ematearen oinarrian den helburu zehatza betetzeko erabiltzea diru-laguntza.
- Eskatzen zaien informazio osagarri guztia aurkeztu beharko diote Lezoko Udalari.
- Diru-laguntza ematerakoan kontuan izandako edozein gorabehera –hala objektibo, nola subjektibo– aldatzen bada, horren berri ematea.
- Oinarri hauen 4. artikuluan adierazitako baldintzak betetzeko behar diren kudeaketa lanak egitea.

8. artikulua. Eskabideak aurkezteko epea eta modua

Orokorrean, kasu guztietarako:

1. Lezoko udaleko eskaera-orri ofiziala, behar bezala beteta eta sinatuta.
2. Laguntza eskatzen duen pertsona bakoitzaren Nortasun Agiriaren, pasaportearen edo egoitza txartelaren fotokopia.
Adintxikikorik balego, Familia Liburuaren fotokopia edo jaiotzaziurtagiria ere aurkeztu beharko da. Dokumentazio hau beharrezkoa izango da, kasu guztietan, senidetasuna egiaztatzeko, baldin eta ondorengotza alegatu bada.
3. Etxebizitzaren alokairu kontratuaren kopia, indarrean dagoena eta diruz lagundu daitekeen epe barnekoa, 12 hilabeteko gutxieneko iraupenarekin.
4. Eskaera egin bitarte alokairu kontratuaren baitan egindako hileko ordainketa agiriak. Agirietan alokatzailearen izena azalduko ez balitz, zinpeko aitortpena ere aurkeztuko da ordainketa berari egin zaiola adieraziz.
5. Eskatzailearen kontu korrontearen titularitatea egiaztatzen duen agiria.
6. Gipuzkoako Foru Aldundiak egindako ogasun higiezin gaineko ondasunen ziurtagiria eta Espainiako Haziendak egindako ogasun higiezin gaineko ondasunen ziurtagiria

Etxe biziaren baten titular-kide izanez gero, aurkeztu beharreko agiriak:

- Herentzia kasuan, herentziaren onarpen-agiria eta etxe -biziaren partaidetzaren eskritura.
 - Dohaintza-kasuan, dohaintza-eskritura.
 - Bi kasuetan, partaidetza saldu izan balitz: eskualda tzearen eskritura.
7. Bizikidetzaren Unitateko kide guztien diru-sarreraren egiaztapenak: pentsioak, nominak edo beste diru-sarreraren agiriak (dagokion erakundeak igorrita).
 - A) Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitortpena egitera behartua dagoenak (PFEZ) edo dagoeneko egina duenak honako hauek aurkeztu beharko ditu:
 - Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga dela eta, betetako azken zerga-ekitaldian aurkeztutako Aitortpenaren fotokopia eskaera hau aurkezteko unean.
- Horrez gain, zergapekoak ez diren prestazioak jasoko balira, prestazio horien ziurtagiria.

B) PFEZaren aitorpena egitera behartua ez dagoenak honakohauak eman beharko ditu:

- Ekitaldi horretan (eskaera hau aurkezteko unean betetako azken zerga-ekitaldia) PFEZaren aitorpena aurkezteko derrigortasunik ez izatea egiaztatzen duen ziurtagiria, Foru Ogasunak emana.

8. Administrazioarekin Gizarte Segurantzako betebeharrak eta Zerga obligazioak betetzerakoan egunera dagoenaren egiaztatzea.

9. Beste diru-sarrera batzuk (zenbatekoa adieraziko da) badaudela eta/edo beste erakundeetan diru-laguntza eskatu dutela adierazten duen zinpeko aitorpena.

10. Diru-laguntza emateko betebeharrak kontuan izanik, baliagarria izan daitekeen beste edozein agiri.

Erroldako eta udal ogasunarekin zorrik ez izatearen datuak Udalak jasoko ditu zuzenean.

Eskabidearen epea eta modua

Eskabideak urteko edozein unetan egin daitezke, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako egunaren biharamunetik aurrera.

9. artikulua. Akatsak zuzentzea.

Eskabideak edo harekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioak aka tsen bat baldin badu edo osatu gabe baldin badago, interesatuei hamar laneguneko epea emango zaie, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik aurrera, antze mandako hutsak konpon ditzaten.

Emandako epea amaitu eta aurkitutako akatsak konpondu ezean, eskaera bertan behera utzi dutela iritziko da, prozeduraartxi batuz, Administrazio Publikoen Prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikuluan xedatutakoarekin bat ebazpena eman eta gero.

III-DIRU-LAGUNTZAK EMATEA

10. artikulua. Dirulaguntzen zenbatekoa.

Dirulaguntzaren zenbatekoa, eskatzaileen diru-sarreraren arabera ezarritako atal sistema baten oinarritzen da, atal bakoitzari portzentai bat esleitzen.

La cuantía de la subvención se establece en un máximo de 250 euro al mes por cada solicitud para un periodo máximo de 12 mensualidades.

Diru-laguntzen zenbatekoak hauek izango dira:

— Bizikidetzaren unitatea pertsona bakarrak osatzen duenean:

Diru sarrera gordinak eurotan	Alokairu-gastuaren %	Gehienezko diru-laguntza
23.000,01€ eta 25.000€ bitartean	20%	100€
21.000,01€ eta 23.000€ bitartean	30%	150€
19.000,01 eta 21.000€ bitartean	40%	200€
19.000€ arte	50%	250€

— Bizikidetza-unitatea pertsona batek baino gehiagok osatzen dutenean:

Diru sarrera gordinak eurotan	Alokairu-gastuaren %	Gehienezko diru-laguntza
33.000,01€ eta 39.000€ bitartean	20%	100€
30.000,01€ eta 33.000€ bitartean	30%	150€
26.000,01 eta 30.000€ bitartean	40%	200€
26.000€ arte	50%	250€

11. artikulua. Diru-laguntzaren ordainketa

Diru-laguntzen ordainketa zatika egingo da, hiruhileko naturalean behin. Lehen ordainketa deialdiaren ebazpenarekin egingo da, eta zenbatekoa data horretara arte egiaztatutako alokairu gastuen araberrako proportzioan egingo da. Hurrengo ordainketak hiruhileko naturalaren amaieran egingo dira (apirila, uztaila, urria eta urtarrila), hilabete horietako alokairu ordainketa egin dutela zuritu ondoren.

Alokairu partekatua denean, bizikidetza-unitate bakoitzari emateko laguntza kalkulatzeko, etxebizitza osoaren hileko errenta zatituko da kontratuko titularren kopuruaren artean.

Etxe bizitza bakoitzeko eskatzaile bi edo gehiago daudenean eta laguntzarako eskubidea dutenean, ordainketa eskatzaile bakoitzaren bankuko kontuan egingo da.

12. artikulua. Justifikatzeko agiriak.

Behin diru-laguntza emanda, onuradunak ondorengo dokumentuak aurkeztu beharko ditu, hiruhilekoa amaitu eta ondorengo 15 egunetan

a) Alokairu kontratuaren baitan egindako hileko ordainketa agiriak. Bizikidetza unitate bakoitzak aurkeztu beharko du dagokion hileko alokairuaren zatiaren ordainagiria. Ez da onartuko alokairu osoaren ordainagiri bakarra, bizikidetza unitate desberdinak baldin badaude partekatzen alokairua.

Ordain-agirietan alokatzailearen izena azalduko ez balitz, zinpeko aitortpena ere aurkeztuko da ordainketa berari egin zaiola esaten.

b) Administrazioarekin Gizarte Segurantzako betebeharrak eta Zerga betebeharrak betetzerakoan egunera dagoela egiaztatzea. Gainera, bizikidetzaren unitateko 18 urtetik gorako guztiek Lezoko Udalarekin zergak, tasak, arielak eta zehapenak eguneratuta edukiko dituzte.

c) Onuradunaren egoeran aldaketaren bat izan bada, oinarri hauetan ezarritakoaren arabera dokumentazio berria aurkeztera behartzen duena.

Emakidak irauten duen bitartean, emakidaren baldintzak mantendu behar dira (errola, diru-sarrerak...). Mantendu ezean, diru-laguntzaren emakida bertan behera geratuko da eta pertsona onuradunak Udalak emandako zenbatekoak itzuli beharko ditu, gutxienez baldintza bete izan ez diren epearen iraupenari dagozkionak.

Eskatzaileak agiri justifikagarriak dagokion epean aurkezten ez baditu, diru-laguntzaren emakida bertan behera geratuko da.

13. artikulua. Beste diru-laguntze kin bateragarritasuna.

Oinarri hauen arabera emandako diru-laguntzak helburu berarekin ematen diren beste diru-laguntzekin bateraezinak izango dira.

Berariaz baztertuta daude Alokabide Programaren bitartez etxe bizitza alokatuta dutenak.

IV-PROZEDURA

14. artikulua. Diru-laguntza eskaeren ebazpena.

Espedientearen izapideak egin ondoren, Udaleko teknikariek dagokion azterketa egin eta txostena egin ostean, Tokiko Gobernu Batzarrak, oinarrietan ezarritakoarekin bat, eskaera onartzeko edo ukatzeko ebazpena emango du.

Ebazpenean diru-laguntzaren zenbatekoa eta ordainketa era zehaztuko dira.

Ebazpena interesdunei jakinaraziko zaie.

V-DIRU-LAGUNTZAREN KONTROLA

15. artikulua.

Lezoko Udalak egokitzat jotako agiriak aurkez ditzatela eskatu ahal izango die onuradunei.

Udal zerbitzuak bertaratu ahal izango dira, edota Udalaren datu baseak kontsultatu ahal izango dituzte diru-laguntzaren oinarrietan adierazitako baldintzak betetzen direla egiaztatzeko helburu bakarrarekin.

Lezoko Udalak, bere fiskalizazio-eginkizunak betetzeko, informaziorik eskatuz gero, diru-laguntzen onuradunek eman egin beharko diote.